

Sendabelarrak historian zehar Euskal Herrian hamaika errezeta aurki ditzakegu

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Ekain Mtz. Lizarduikoa

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2012-05-20

Zer da fitoterapia?

Gaur egun, fitoterapia, eta sendabelarrak oro har, modan daude, nahiz eta landareen sendatzeko gaitasuna aspaldi-aspalditik datorren kontua den. «Fitoterapia» hitza, nola ez, grekotik dator: *fyton*, landarea, eta *therapeia*, hau da, terapia edo tratamendu medikoa. «Herbolaria» izena ere ematen zaio, oinarrian, zenbait gaixotasun sendatzeko edo hobetzeko belarrak erabiltzen dituen jakintzagaia baita. Izan ere, fitoterapiaren helburu nagusiak bi dira: prebentzioa eta zenbait patologia tratatzea. Baina, noiztik erabili dira belarrak sendagai moduan? Euskal Herrian erabili izan dira? Eta munduko beste txoko batzuetan?

Nola ikasi dugu landareak sendagai moduan erabiltzen?

Bi alderdi garrantzitsu aipatu behar ditugu galdera honen harira. Alde batetik, landareen erabilera senezkoa izan zela, eta, bestetik, inguruko animalien behaketa zuzenak izan zuen garrantzia. Adibidez, suge baten hozka jasan duen otsoak lurra mugitu eta dragoneta (*Aurum dranculus*) izeneko landarearen sustraiak jaten ditu, eguneroko bizitza arruntean inoiz egingo ez lukeena. Sustrai horiek jandakoan, otsoa sabelustu egiten da, eta sugearen pozoi guztia kanporatu egiten du. Gure inguruetako zakurrek eta katuek ere tankerako zerbait egiten dute, zenbait belar jaten dituztenean purga hartzeko.

Noiztik erabiltzen ditugu gizakiok sendabelarrak?

Antzinatek aztertu eta erabiltzen dira sendabelarrak gaitzak tratatzeko. Antzinatean horren adierazgarri dira, adibidez, duela 125.000 urte gure arbasoak ziren Neanderthalgo gizakien hondakin fosilduetan aurkitutako sendabelarren arrastoak. K.a. 3500 urtera jauzi egin behar dugu sendabelarren erabilera eta azterketa baieztatzen duten idazkiak aurkitzeko.

Fitoterapiaren erabilera historian zehar oso lotuta egon da pentsamendu medikuaren garapenarekin eta belaunaldi belaunaldi sendabelarrekin loturik egon diren tradizio multzo zabal batekin.

Historiaren zertzelada batzuk

Sendabelarren erabileraren inguruan, ezinbesteko hutsegite eta aurrerapausoak izan dira historian. Zeinuen Teoria edo Doktrina eta analisirako metodoen berriztatzeak ezinbestekoak izan ziren.

Zeinuen Teoria edo Doktrina

Teoria horren arabera, landareek, mineralek edo animaliek badituzte beren gain hainbat seinale, duten sendatzeko ahalmena ezagutzeko aukera ematen digutenak. Hala antzinako medikuntzak nola herri-medikuntzak ideia horren aldekoak ziren. Alabaina, Paratzelso alkimista eta sendagile suitzarra (1493-1541) izan zen teoria hori gehien garatu zuena, haren iritziz, gaixotasun bakoitzak tratamendu berezia behar baitzuen eta baita botika berezi bat ere, askotan mundu naturalean aurki zitekeena.

Teoria horren bultzatzaileen ustez, landare askok giza organoekin zituzten antzekotasunak kontuan harturik, landareek organo horiek sendatzeko baliagarriak ziren. Adibidez, *pulmonaria* edo biri-belar landarearen hostoak zituzten orban zuriak biriken itxura hartzen zuten, eta, ondorioz, biriketako gaitzetarako onak zirela uste zuten. Intxaurren kontua ere esanguratsua da. Intxaurrek burmuineko hemisferioekin zuten antzekotasuna ikusirik, neke intelektuala sendatzeko gaitasuna zutela pentsatzen zuten.

Bestalde, Ipar Amerikako tribu indiarrek xamanismo-medikuntza erabili zuten natura behatu eta antzeko metodoa erabiltzeko. Halere, haiek, Paracelsoren jarraitzaileek egiten ez zuten zerbait egiten zuten, alegia, belaunaldiz belaunaldi erabilitako landareak eta erremedioak erabiltzen zituzten, alegia, esperientzia luzean oinarritutako sendagaiak.

XVIII. mendetik aurrerakoak

Analisirako metodo berriak agertu ziren, eta, horrekin batera, landareen egitura kimikoarekiko interesa piztu zen. Hala, landareen sendatzeko gaitasunak landareek dituzten printzipio aktiboekin lotzen hasi ziren. Haritzaren azalak, adibidez, taninoak ditu, eta horiek erabilia tuberkulosia sendatzeko tratamendu bat aurkitu zen, limoiaren C bitamina, eskorbutoa sendatzeko baliagarria zela konturatu ziren modu berean.

Eta antzinako zibilizazio garrantzitsuenetan, zer?

Egipto, Mesopotamia, India, Txina, Grezia, Erroma... zibilizazio horietan guztietan sendabelarrekin lotura izugarria izan zuten. Ez hori bakarrik, gaitzei aurre egiteko bide bakarra izaten zen; horregatik, zentzuzkoa da pentsatzea lehenasunezko lekua zutela medikuntzaren barruan.

Eta Euskal Herrian?

Gure aiton-amonei entzunda edota belaunaldiz belaunaldi transmititu den kultura-ondare aberats horretan (ipuinak, istorioak, erremedioak...), hamaika errezeta entzun edo aurki ditzakegu: sinusitisari edo katarroei aurre egiteko berbenaz eginiko tortillen errezetak, iodo-belarrak garatxoak desagerrarazteko moduak...

Gure arbasoek ondo asko ikasi zuten landare-espezieak bereizten: jangarriak, toxikoak eta gorputzeko gaitzak sendatzeko baliagarriak zirenak. Argi dago ezagutza hori guztia ez zela egun batetik bestera lortu, baina gaur egun, oraindik ere, gure artean dagoen jakintza izugarri aberatsa da, eta, nola ez, gorde eta transmititu beharrekoa.

Ba al zenekien?

- Erdi Aroan santio-belarrak (*Hypericum perforatum*) gaizkia uxatzen zuela uste zutela?
- Modu basatian sortzen den menda mota bat (*Mentha Piperita*) dago, osinekin nahastuta hazten dena. Euskal usadioaren arabera, osinak sorrarazten duen azkura desagerrarazteko menda hori igurtzi behar dugu azalean. Euskaraz, erremedio horretan oinarritutako abesti bat ere badugu:

«Menda menda
Senda senda
Osin gaiztoak
Erre nau».

- Henri Leclerc (1874-1955) izan zen «fitoterapia» hitza lehen aldiz erabili zuena, bere "Précis de Phytothérapie" obra ospetsuan.
- Antzina, erruda (*Ruta Graveolens*) oilaskoen zorrien aurka asko erabiltzen zen. Oilasko guztiak errudaz igurzten zituzten, zorriak ekidin nahian. Arratoiak, bestalde, gorroto dute errudaren usaina; beraz, zentzukoa da erruda arratoiak uxatzeko erabili zutela pentsatzea.
- Txinako farmakologia-tratatuak (Pen ts'ao kang-mou) 8.160 errezeta biltzen ditu. Errezeta horiek guztiak landare-jatorriko 1.871 substantzian oinarrituta daude.